



Organización  
de las Naciones Unidas  
para la Educación,  
la Ciencia y la Cultura

Hezkuntza  
Zientzia eta Kulturarako  
Nazio Batuen  
Erakundea



Costa Vasca  
Geoparque  
mundial de  
la UNESCO

Euskal Kostaldea  
UNESCOn  
munduko  
Geoparkea

Geoparkea

Euskal Kostaldea - Costa Vasca



Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea

# GESTIO PLANA

2021

## Aurkibidea

SARRERA.....	3
1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA.....	4
2. ARDATZA: GEOTURISMOA.....	6
3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA .....	8
4. ARDATZA: KUDEAKETA OROKORRA eta KOMUNIKAZIOA.....	9
5. ARDATZA: TOKI GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA.....	12

## SARRERA

2021 ziurgabetasunez betetako urtea izango da, COVID-19K eragindako osasun-krisiak eta Geoparkeko lan-eremu guztietan dituen ondorio nekagarriek eta turismoan eragin berezia izateak markatu duten 2020. urtearen ondoren.

Hasiera batean, Kudeaketa Plana urte "normal" bati aurre egiteko prestatu da, baina jakin badakigu gutxienez lehen hiruhilekoan 2020ko dinamikarekin jarraituko duela.

Naturguneak, oro har, eta, bereziki, Euskal Kostaldeko Geoparkea indartuta aterako dira egoera horretatik, eta espero da bisitarien kopurua mantentzea eta handitzea. Horrek, gure mezua bisitariei helarazteko aukera ematen digu baina beste erronka batzuk ere sor ditzake, turismo-kudeaketaren eta ingurumen-kudeaketaren ikuspegitik, esaterako.

Honekin lotuta, zentzu handiagoa hartzen dute ingurumenarekiko sentsibilizazio- eta errespetu-ekintzek. biodibertsitatearen kontserbazioan eta ekosistemen mantentze-lanetan eragiten saiatuko gara, natura guneetan esku hartze jarduketekin.

Geoparkea bisitatzeko/ezagutzeko proposamenak indartzen dira: bisita gidatu geoturistikoen programa, mugikorrean deskarga daitezkeen georutak, ibilaldiak egiteko aplikazio mugikorra, liburuak, liburuxkak, gidak eta abar, guztiak ere gure apustu ekoturistikoa indartzen duen ondarearen interpretazioan arreta berezia jarrita.

Historiaurreko Bailarak protagonismo handia izango du aurten, lehenengo fasea esleitu eta gauzatuko baita: Historiaurreko Bailarako Ibilbidea.

Tresna berriak erabiliz komunikazioa areagotuko da eta webgunea hizkuntza guztietan ondo posizionatuko da bisitariengana zein herritarrengana iristeko. Beste maila batean, Geoparkeen ikusgarritasuna eta sustapena, oro har, eta Estatuan bereziki, funtsezkoa izango da.

Jarraian, 2021eko Kudeaketa Planak zer emango duen azalduko dugu.

## 1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Ardatz honen baitan ikerketa, lurraren zientzien gizarteratzea, geodibertsitatea eta ondare natural eta kulturalaren kontserbazioari lotutako helburuei erantzuna ematen zaie.

Ondare geologikoaz gain, ondare arkeologikoa, itsas ondarea eta ondare ukiezina hartzen ditu kontuan. Ardatz honen helburuetako bat da, baita ere, ingurumen-heziketako eskaintza koordinatu bat sortzea. Eskaintza horrek, Euskal Kostaldeko Geoparkea publiko desberdinentzako interesgarri egitea du helburu, indar berezia eskola-esparruan ipinita.

### 1.1. LURRAREN ZIENTZIEN (LZ) ALORREKO IKERKETA ETA DIBULGAZIOA

- **Eragin eremuaren bideragarritasun plana.** Geoparkea inguratzen duten herrietako baliabideen azterketa bat egingo da. Baliabide/herri hauekin banakako harremanak definituko dira katalogazio eta interes amankomunen arabera.
- **Irteera gidatuen edukien eguneratzea.** 2021ean beste bisita baten edukiak eta materiala berriztuko da, gidarien karpeta eta material grafikoa, besteak beste. Ariketa hau etengabeko hobekuntza bat da bisitetan kalitatea hobetzen joateko.
- **Giza- eta ingurugiro-faktoreen elkar-eraginak Euskal Kostaldeko Geoparkeko paisaiaren formazioan** ikerketa proiektua garatuko da. Proiektu hori ikerketa dirulaguntzetara aurkeztutako proposamenetatik aukeratua izan da.
- **Nautilus ikerketa eta didaktika gela** zabalduko da urteko lehen hiru hilabetekoan. Amoniteen bilduma osoa han dago jada eta espazio guztiak tematizatu dira. Gela prest gelditu da ikerketa lanak burutzeko eta eskolako ikasleen bisitak jasotzeko. Honekin, 2018ko Unescoren ebaluaketa txostenean jasotzen zen gomendio bat betetzen da eta Nautilus Interpretazio Zentroa osatzeko eta bultzatzeko funtsezko pieza bihurtzen da, Mutrikurako baliabide garrantzitsuenetarikoa izanez.

### 1.2. ONDARE ARKEOLOGIKOA ETA HISTORIAURREA

- **Ikerketaren sustapena,** Aranzadirekin elkarlanean Linatzeta kobako indusketa egingo da Jesús Tapia arkeologoaren zuzendaritzapean.
- **Karst eta gizakiaren aurreproiektua (Historiaurrearen bailara).** Aurre proiektua bukatuta, fase ezberdinen exekuziorako finantzaketa lortzeko pausoak emango dira Debako Udalarekin batera. 2021ean Aurre Historiaren Bailara ibilbidearen

proiektuaren esleipena eta exekuzioa egingo da eta horrekin batera, Ermittia eta Praileaitzeko Plan Zuzendaria aurrera eramango da.

### 1.3. INGURUMEN HEZKUNTZA. GEOESKOLAK

2021. urtean azkenengo hiru urteetan sortu den materialari errendimendua ateratzeko urtea izango da. Ez da material berririk sortuko aurreko hirurak martxan ipini arte.

- Geoparkeko Flyscha DBH4rako
- Amonite fosilak, LH1erako
- Lasturko Karsta, LH6rako

Material hau Geoparkeko 9 eskoletara helaraztea da lehentasuna baina materiala edozein eskolak eskatzen badu, eskuragarri egongo da hauentzat ere.

#### **Konferentzia, ikastaroak, hitzaldiak etab.:**

Aurten, aurreko urteetako dinamikak berreskuratzea espero da, Geoparkeko ordezkarien partaidetza indartuz. Seguruenik telematikoak izango dira ekitaldi asko baina urtearen bigarren seihilekorako aktibitate normala berreskuratzea espero da. Leku horiek ikusgarritasun handia dute, eta hartzaile oso zehatzei zuzenduta daude. Geoparkeak erreferentziatzko erakunde gisa posizionatu nahi du horietan ikerketaren eta dibulgazioaren alorrean.

## 2. ARDATZA: GEOTURISMOA

Geoturismoa sustatzeko ekintzak proposatzen dira, beti ere, turismo jasangarriaren irizpideei jarraituz.

### 2.1. PRODUKTUAK ETA BALIABIDEAK

- **Ekoturismoa**

Ekoturismoa da Geoparkearen turismo jardura markoa. Agerian gelditu da COVID-19aren krisian, naturaguneak izan dira hoberen baloratuak izan diren helmugak eta Geoparkea horren adierazle izan da. 2021ean ildo berdinetik jarraituko dugu. Basquetourrek bultzatutako ekimenetan izango gara, kongresu eta lan-mahaietan jarrera aktiboa edukiz.

2021ean, irizpideak betetzen dituzten entitate kolaboratzaile berriei eskainiko zaie ekoturismo klubean sartzeko aukera, promozio eta proiektu berrietan sartzeko aukerarekin.

- **Zientzia turismoa**

Helburua berdina izanda, ez dira aktibitate berezirik egingo gauzak bere onera bueltatu arte. Unibertsitate eta zientzia elkarteak bidaiatzen hasten direnean helduko zaio berriz promozioari.

- **Kirol ekitaldiak**

Iaz bertan bera gelditu ziren kirol ekitaldi guztiak. Aurten egiten badira gure laguntza eskainiko diegu baldintza berdinetan:

- “Zumaia Flysch Trail “mendi lasterketa
- “Lasturko mendi martxa: Geoparkeko karstaren bira”
- “Mutriku-Deba Flysch Beltza igeriketa zeharkaldia”
- **Promozio bereziak**, deskontuak eta opari-bonoa bisita gidatuak promozionatzeko, talde konkretu edo ekitaldi puntualentzat.
- **Irteera espeleologikoak** egingo dira orain dela bi urteko dinamika jarraituz eta Ermittiako zuloa eta Aixa izango dira aukeratutako Kobak. Espeleologo zaletuek gure arreta eskatzen dihardute baina momentuz ekimen honi helduko diogu eta elkarlan motak baloratuko ditugu.

## 2.2. IRTEERA GIDATUAK

Bistari datuak eta bisita kopurua mantentzea da helburua, gutxien ateratzen diren bisitak indartuz. Programazioa urtero bezalako izango da nahiz ta 2021a 2020a bukatu zen bezalako mugikortasun mugekin hasi. Programa beste urtetan bezalako izango da, 15 bisita mota eta 1.000tik gora bisita programatuta urtean.

Protokoloak eta segurtasun neurriak prest daude urteari aurre egiteko nahiz eta jakin gutxienez Aste Santura arte ez dela aktibitatea normaltasunez egingo. Irteera gidatuen merkaturatze bidea hurrengo hau izango da:

- [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus) webgunea eta on line erreserba sistema.
- Geoparkeko hiru turismo bulegoak eta Donostiako Gipuzkoa Turismo bulegoa.
- Bidaia-agentziak eta errezeptiboak. Urtero-urtero indar gehiago hartzen doaz eta negozio bolumena handitzen.

Ordea, taldeak direnean zuzenean Geograpenek kudeatzen ditu. Honen helburua, bisitarien egonaldia luzatzea da, toki ezberdinak bisitatu eta esperientzia ezberdinak sustatzeko tratamendu pertsonalizatu baten bitartez. Eskola taldeak Algorrira bidaltzen dira zuzenean eta talde orokorrak eta erabakian eragina izateko aukera gutxi daukatenak, bertako enpresei.

## 2.3. PROMOZIOA ETA MERKATURATZEA

Turismo promozioa egiteko erremintak urterokoak dira:

- Momentuz Berlineko **turismo azoka** on line atendituko dugu hiru turismo bulegoen artean, ekoturismo klubak gonbidatuta. Aktibitatea berreskuratzen denean, beti bezala, Basquetour eta Gipuzkoa turismoren eskutik joango gara azoka ezberdinetara. Fitur maiatzera atzeratu dute, orduan egiten bada, planteamendua beste urte batzuetakoa izango da: Costa Vasca eta EGNko standean egotea.
- **Irteera gidatuen folleto** berria aterako da. Liburuxka beharrea mapa formatuan diseinatu da. Urtero bezala turismo bulego eta hotel nagusietara bidaliko da.
- **Merchandising** produktu berri bat aterako da, turismo bulegoetan saldu eta opari bezala erabiltzeko.
- **Promozio bereziak**, deskontuak etab. eskainiko dira.

### 3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

#### 3.1. IBILBIDEAK ETA MENDI-BIDEAK DISEINATZEA

- Interreg proiektuan garatu zen **Geoturismo app-a** kaleratuko da, hasieran 3 geo-ibilbide berriekin, Algorriko georuta, flyscheko behatokiak eta Mutrikuko paseo berria interpretatuta.
- Aurre historiaren bailara ibilbidea egingo da. Gestio Planean islarik ez eduki arren, Udalaren ekintza bat delako, hala behar ezker, Geoparkeak proiektua garatzen lagunduko du.

#### 3.2. INTERPRETAZIORAKO AZPIEGITURAK

Aurten ez da aurre ikusten azpiegituretan inbertsiorik. Algorri Interpretazio zentroaren berrikuntza dago udalaren agendan eta nahiz ta gure aurrekontuan eraginik ez eduki oso garrantzitsua izango da Geoparkearen garapenerako.

- Algorriko Flysch Interpretazio Zentroaren exekuzioa. Helburua proiektua gauzatzeko finantzaketa topatzea da.

#### 3.3. INGURUNE NATURALA BABESTEIA ETA KONTSERBATZEA

- BIO TOP ( Biodibertsitate topaketa) **herritarren zientziari** lotutako ekimena.
- Nazioarteko egunen ospakizuna. GGN saretik jasotzen dugu nazioarteko egunak ospatzeko gomendioa. Horrela, aurten hiru egun ospatuko ditugu:
  - Hezeguneen Eguna otsailaren 2an
  - Ama Lurraren eguna, apirilaren 22an
  - Mendien Nazioarteko Eguna, abenduaren 11an.
- Zuhaitz Eguna otsaila eta martxoa artean ospatuko dugu iaz hasitako zuhaitz landaketari jarraituz. GFAREN eta Itziarko Auzo Udalaren laguntzarekin.
- Beste ekimen batzuk, naturarekiko sentsibilizazioa indartzeko. Adibidez, natura-argazki tailerra, zuhaitzak ezagutzeko tailerra...

Geoparkea eta EJKo Ingurumen Saileko hitzarmenaren baitan, ekosistemen babesa edo biodibertsitatea berreskuratzeko neurrietan lan egitera animatzen gaitu, lur zaintzako formularen bitartez edo helburuak lortzeko egokiagoa den beste modu baten bitartez. Geoparkeak apustu bat egingo du ekintza hauek aurrera eramateko baina horretarako udalekin begiratuko da proiektuen bideragarritasuna.



## 4. ARDATZA: KUDEAKETA OROKORRA eta KOMUNIKAZIOA

2021ean ere lan postuak eta kanpo laguntzak mantentzea da helburua.  
Lantaldea: Geograpeneko langileak

- **Gerentziak** Geoparkearen kudeaketa orokorarekin lotutako eginkizunak betetzen jarraituko du, bai Europako eta Munduko Geoparkeen Sarean (EGS/MGS) eta Espainiako Geoparkeen Batzordean (CNEG) ordezkari-tza-lanak gauzatzen ere.
- **Irteera gidatuen dinamizatzaileren eginkizuna**
  - On line sistemaren kudeaketa.
  - Turismo atalaren kudeaketa orokorra.

Kanpo-laguntza:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunekin jarraituko du, bai EGS eta MGS ordezkari-tzarekin. Foroko koordinazioa ere mantendu egingo du eta beraz, MGSko aholkularitza batzordeko kide izaten jarraituko du.
- **Komunikazio-zerbitzua eta prentsa-kabinetea** arduratuko da komunikazioaren alorreko aholkularitza, prentsa-oharrak sortzeaz, webgunea eguneratzeaz, boletin digitalaz, eta abarrez.
- **Community managerra** (sare sozialen kudeatzailea) @Geoparkea markaren estrategiaz Facebooken, Twitterren eta Instagramen arduratuko da.
- **Ingurumenaren eta jasangarritasunaren** koordinazioa, Naturagune Babestuen (NB) jarduerak eta ingurumen-heziketako ekintzak sustatzeko.
- **Kontabilitate, aholkularitza juridikoa eta urteko kontuen ikuskaritza** erakundearen kudeaketarako.
- **Interreg** Azken auditoria izango da urte hasieran, proiektua iazko azaroan bukatu bait zen.

### 4.1. HARREMANAK EUROPAKO GEOPARKEEN SAREAREKIN (EGS) ETA UNESCOREKIN.

Atal honen helburua da nazioarte mailan Geoparkearen presentzia eta influentzia handitzea. Horretarako, jarrera aktiboa izango dugu bai antolatzen diren topaguneetan, baita eskaintzen zaizkigun beste aukera batzuetan ere.

- EGN topaketak 2021ean:
  - Udaberriko hitzordua Croaciako Papuk Geoparkean izango da, 2020 bertan behera gelditu zena.

- Coreako Jeju Geoparkean izango da Munduko Sarearen hitzordua iraila bukaeran, hau ere 2020an ez zena egin.
- Urteroko ekarpenak Europako eta Munduko Geoparkeen Sareari, sustapen-tasa gisa lehenik, eta UNESCOren Geoparkeen programaren funtzionamendurako ekarpen gisa bigarrenik.

Europako Sareko Koordinazio batzordeetan hurrengo lantalde hauetan hartuko dugu parte:

- SDG (GIH/ODS) lantaldean
- Hezkuntza lantaldean
- Fosilen lan taldean
- Geoturismo lantaldean

Bi sareek erabiltzen dituzten informazio-euskarrietan gure ekarpena handitu. Bestek beste:

- EGN newsletter, sei-hilerokoa
- GGN Newsletter
- EGN magazine

Kontrolerako erabiltzen diren txostenak ere bidaliko dira:

- Urteko txostena
- Geoparkeen asteko programa eta balorazio txostena

**Unescoren ebaluatzaile zerrenda.** EGN sareko Geoparkeko bi ordezkariak, Unescoren ebaluatzaile lanak egiten dituzte eta urtero hautagaitza berriak eta ebaluazioak egiten dituzte. 2020 ez ziren egin baina 2021ean berriz hastea espero da.

#### ESPANIAKO GEOPARKEEN FOROA

Foroaren ekimen bat **Geoparkeen Jardunaldi irekiak** izaten dira. Urtero toki ezberdin baten eta gai ezberdin batekin egiten dira. 2020an Maestrazgoko Geoparkean izan behar ziren azaroan, Europako Sarea sortu zeneko 20 urteak ospatzeko. Ezin izan da burutu eta 2021ean izango da.

Foro mailan web berri bat eta marketing on line kanpaina bat egiteko pentsatzen gabilta.

#### **CNEG (Comité Nacional Español de Geoparques)**

Batzorde honetan ordezkariak, Geoparkeko ordezkariaren eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Zuzendariarena da. 2021ean erabaki garrantzitsuak aurre ikusten ziren batzorde honen baitan, Batzorde beraren sorrera arautzen duena eta bestetik,

Unescora bidali aurretik hautagaitza berriei ezarriko zaien lehentasun eta egiaztapen dokumentuaren edukia. Geoparkeak aktiboki lan egingo du bi erabakietan.

## 4.2. KOMUNIKAZIO ESTRATEGIKOA

### ON LINE

- Webgunearen kudeaketa eta erreserba zentralaren hobekuntzak
- Albisteen atala eguneratuta mantenduko da. 2021an 50 bat albiste argitaratuko dira webgunean.
- Newsletterra bi hilebetero bidaliko da gutxi gorabehera. 6 bat ale, urte osoan.
- **SEO kanpaina** bat ere egingo da, web gunea hizkuntza guztietan ondo posizionatuta egoteko.
- Geoparkean egiteko planak edo eta zientzia artikuluak zintzilikatzeko **blog** bat sortzearen aukera ikertuko dugu.
- WhatsApp for Business, herritar gertuenekin komunikazio erreminta berri bat garatuko dugu.
- Web berria eta marketing digital kanpaina bat Geoparkeen Fororako.

### OFF LINE

- Komunikabideetan **publizitatea kontratatzea**, irratian zein prentsan edo aldizkari espezializatuetan. Batez ere, hiriburuetako komunikabideetan eta jarduera turistikoa murriztagoa den hilabeteetan.

## 5. ARDATZA: TOKI GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA

### 5.1. LEHEN SEKTOREA SUSTATZEA

- **Geogourmet otarrak** saltzea lurraldean ekoiztako produktu bereziak balioesteko eta Geoparkea sustatzeko ekintza gisa. Hornitzaile bereberekin jarraitzen dugu, eta hiru turismo-bulegoetan egongo dira salgai prezio berean.
  - Txakolina: Sagarmaña eta Flysch
  - Gazta: Goienetxe
  - Atuna kontserban: Sizzo eta Nardín

### 5.2. GEOPARKEZALEAK

- 2020an akzio plana egin zen eta 2021ean egindako plangintzan lehenetsitako ekimenak burutuko dira.
- **Prospekzio bisita Villuercaseko Geoparkera** (Caceres). 2020 aurre ikusita zegoen, urtebete atzeratuko dugu.
- **10. Urteurreneko bideoaren aurkezpena.**
- **Entitate kolaboratzaileei** formakuntza emango zaie: oinarritzko geologia, geoparkeko baliabide turistiko eta didaktikoak, etab.

### 5.3. GEOPARKEEN EUROPAKO ASTEA

Maiatzaren 28tik ekainaren 6ra, Geoparkeen Europako Astea ekimena gauzatuko da. 2021a Karstaren eta kobazuloen Nazioarteko Urtea da. Geoparkeak asko dauka esateko gai honen inguruan eta seguruenik, Geoparkeen Europako Astearako hautatuko dugun gaia izango da hau. Oraindik zehaztuta ez badago ere, antolatuko diren ekitaldiak honako hauek izango dira:

- Hitzaldiak
- Tailerrak, erakusketak...
- Doako bisita gidatuak Aixa edo Ermittiako zulora
- Marrazki lehiaketa ikasleentzat
- GeoTalks
- Geoparkeko bira (etapaka)